

.....Software librea :: oinarriak.....

Ordenadoreen garaian bizi gara: erosketak egindakoan ordenadore bidez kalkulatzen dugu kontua, ipuinak idazteko ordenadorea erabiltzen dugu, musika ere ordenadoretik pasatzen dugu mp3 makinatxora, argazkiak eta bideoa ordenadore bidez ikusten ditugu, enpresetako kontabilitatea ordenadore bidez eramaten dugu, soldata ere makina batek ordaintzen digu, ordenadorerik gabeko eskolarik ez dago, ez eta ikerkuntzarik ere eta informazio guztia ordenadoreen bidez kudeatzen dugu. Denerako erabiltzen dugu ordenadorea; makina bakar bat era guztietako lanetarako erabil daiteke, baina zeregin bakoitzerako programa edo aplikazio berezi bat behar dugu, hau da, softwarea behar dugu. Softwarerik gabe ordenadorea txatarra hutsa litzateke.

Azken finean softwarea da ordenadorea erabilgarri egiten duena, horregatik softwarea sortzea garrantzi estrategikoa duen zeregina da, eta gaur egun negozio ikaragarria. Noren esku dago softwaregintza?

Informatikariak dira softwaregintzan dabilzanak, eta aplikazio bat sortutakoan aplikazio hori egilearena da, edo hori sortzeagatik ordaindu dionarena. Aplikazioaren jabeak kopiak saldu ditzake, eta horrela aberastuegin daiteke, baina beste norbaitek antzeko aplikazioa sor dezake, eta bigarren horrek ere bere aplikazioaren kopiak saldu ahal izango ditu.

Baina aplikazio baten jabeak aplikazio hori edonork erabil dezakeela erabaki dezake, eta ez erabili bakarrik, baita hobetu ere. Edonork eskubide horiek ematea erabaki dezake. Horrelako softwareari software librea deitzen zaio. Hori egitearen arrazoiak asko izan daitezke, esate baterako, administrazioaren diruekin ordaindutako aplikazioek ez al lukete horrelakoak izan behar? guztiok ordaindutako aplikazioak direnez, guztiok erabiltzeko moduan egon beharko lukete. Bestalde, gaur egun oinarri-oinarrizkoa da ordenadorea gure bizitzetan, eta ordenadoreak erabili ahal izatea guztion eskubidetzat har daiteke, bai eta ordaindu ezin duenarena ere.

Arrazoi edozein izanik, gaur egun software libre asko dago guztion eskura, eta ez hori bakarrik, mundu mailako proiektu erraldoi bat ere badago, guztion erabilera librerako softwarea egiteaz arduratzen dena: GNU proiektua hain zuzen ere. Proiektu honen helburua erabilera guztietarako software librea sortzea da: edonork erabil dezakeen softwarea, edonork hobetu dezakeen softwarea eta ordaindu beharrik ez dagoen softwarea. Software horrek mundu guztiari askatasuna ematen dio, teknologia guztion eta edonoren eskura jartzen du, beraz, elkartasunaz, solidaritateaz, auzo-lanaz, berdintasunaz eta horrelako baloreez hitz egin beharko genuke software libreaz ari garenean. Teknologiaren jabeago publikoa bultzatzen du, eta ez jabeago pribatua.

Gaur egun, eguneroko edozein zereginetarako erabil daitezkeen software librea badago, ordaindu beharreko softwarea bezain ona da, edo hobea, baina orokorrean jendeak ez daki hori horrela denik, eta negozioa egiten dutenei ordaintzen jarraitzen du, edo (ordaindu gabeko) kopia piratak erabiltzen ditu. Gainera, software jabea ezin da aldatu, eta esate baterako, hizkuntza jakin batera, euskarara kasu, ezin da itzuli, jabeak bakarrik egin baitezake hori. Negozioa egiteko ez badio balio ez da euskarazko bertsiorik egongo. Programa hori librea bada ordea, edonork euskaratu dezake.

Software librea erabiltzeko arrazoi etikoak

Software librea erabiltzeko eta garatzeko arrazoi nagusiak etikoak dira. Software librea bizitza

ulertzeko modu etiko batetik jaio zen eta bizitza ulertzeko modu hori gauzatzen laguntzen du. Software libreak, batez ere, askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna bultzatzen ditu.

Erabiltzailearen askatasuna bermatzen du

Software jabe-duna erabiltzen dutenek ez dute ordenagailua askatasunez erabiltzen: softwarearen jabeak baimendutako erabilera mugatuta baitaude. Eta, are okerrago dena, zenbaitetan ordenagailuek, beren kasa-jabeak horretarako programatu dituelako, alegia-, erabiltzaileek egin nahi ez dituzten operazioak egiten dituzte, erabiltzaileek jakin gabe. Horregatik, ordenagailua askatasunez erabili nahi duenak software librea jo beharra dauka.

Berdintasuna bultzatzen du

Software libreak ez du jaberik eta transparentea da. Edonork eskura, molda eta erabil dezake, inori baimenik eskatu gabe. Horrela, klaseen eta nazioen arteko amildegia handitu beharrean, software libreak hura murriztu egiten du. "Informatika txiroentzat" lema, esaterako, egia izatea ahalbidetzen du.

Ezagutza demokratizatzen du

Software libreak desagerrarazi egiten du "sekretua dakitenen" inguruan sortzen den joera elitista. Software librea edonork azter dezake, sekreturik ez duelako. Beraz, ezagutza demokratizatu egiten da, eliteen kaltetan. Aurrean daitekeenez, demokratizazio horren onuradun nagusia erabiltzaile arrunta da. Softwarearen jabeek, ordea, ez diote inori uzten softwarearen sekretuak azalarazten, negozioa egiten jarraitzeko. Eta hori gure kalterako da.

Elkartasunean oinarritzen da

Software librea elkar-lanetik sortzen da. Batak bestearen lana profitatzen du eta dinamika horrek emankortasuna biderkatzen du. Lehiakortasunean oinarritutako ereduak baino emankorragoak dira elkartasunean oinarritzen diren produkzio ereduak. Izan ere, elkartasuna da garapenaren benetako motorra, ez lehiakortasuna. Pareko programatzailea ez dela norberarekin lehiatzen ari ulertzen dugunean, norberarekin elkarlanean ari dela alegia, bi indarrak batu egiten dira, elkar ezereztu beharrean. Lanak bi aldiz egin beharra eragozten da.

Software librearen onurak

Dena dela, jarrera etiko eta politiko horretaz gain, software librea aukeratzeko bestelako arrazoi esanguratsuak ere baditugu. Izan ere, erabiltzaile egoistak bagina ere, pisuzko onurak eskaintzen ditu jaberik eta misteriorik gabeko softwareak hura erakargarri egiten dutenak. Software librea garatzen doan heinean, gainera, erabiltzaileoi hura komeniko zaigu gehien. Jabeak, esan beharrik ez dago, saiatuko dira gu konbentzitzen, haien produktuak eros ditzagun. Erabiltzaileok, ordea, ez gara liluratzen utzi behar. Software librea eta jabe-dunaren artean aukera bagenezake, librea aukeratu beharko genuke. Zergatik? Argi dago: askeago egiteaz gain, komeni zaigulako. Software librea jabe-goduna baino merkeagoa, seguruagoa, konpongarriagoa eta lokalagoa da.

Merkeagoa da

Hainbat erakunde eta enpresek dirutzak inbertitu behar izaten dituzte euren softwarea ordaintzen, pirateatu ezin dituztelako. Erabiltzaile arruntek ere diru asko gastatzen dute programak erosten. Software libreak dirua aurrezteko modua eskaintzen du.

Lokala da

Jaberik ez izatean, erabaki guztiak hartzen dituen agente zentralik ere ez dago. Software librearen norabidea, hortaz, erabiltzaileek erabakitzen dute. Hala, behar lokalei erantzuteko software librea prestatuagoa dago, lokalki moldatu daitekeelako, konpainien baimenik behar izan gabe. Neurriko softwareak garatzeko plataforma egokiena eskaintzen du software libreak.

Eraginkorragoa da

Zein programa iruditzen zaizu izango dela eraginkorragoa, 200 programatzailek ala 200.000 programatzailek garatutakoa? Software librea edonork gara dezake, hortaz, giza-errekurtsoen aldetik limiterik ez du, ez baitio inori soldatarik ordaindu behar. Horren aurrean, multinazionalak ezin dezakete lehiatu eta, horregatik, software libreak produktu eraginkorragoak izango dira, sendoagoak eta azkarrago garatzen direnak.

Ekonomia lokala bultzatzen du

Programa libreak programa transparenteak dira. Zerbait gaizki badoa posible da ikustea zer doan gaizki eta hura konpontzea ere edozein programatzailearen esku dago, horrek ekonomialokala bultza dezake.

Seguruagoa da

Edonork azter dezake zer eta nola egiten duen lan, ondorioz, kaltea eragiteko helburuarekin sartutako kode zatiak, birusak eta halakoak, berehala detektatzen dira. Erasoen aurrean babesteko eta ondoren irtenbideak bilatzeko, beraz, hobea da software librea, seguruagoa.

Software librearen arrakasta

Gero eta norbanako, erakunde eta instituzio gehiago ari dira software librerako jauzia ematen. Batzuk arrazoi egoistengatik aukeratzen dute software librea, merkeagoa eta seguruagoa delako, adibidez. Beste batzuk, berriz, software librearen filosofiarekin bat egiten dutelako. Arrazoi batzuegatik edo bestegatik, software librearen boom-a da emaitza.